

ELGOIBARKO UDALA

2018-2022 ESEP EGITASMOA GALDETEGIAREN EMAITZAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK

2018ko azaroaren 20an

AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	GALDETEGIAREN EMAITZAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK	3
2.1	Familia transmisioa	3
2.2	Euskalduntze-Alfabetatzea	4
2.3	Irakaskuntza arloa	5
2.4	Aisia eta kirol arloa.....	6
2.5	Arlo sozio-ekonomikoa	7
2.6	Liburugintza, Kulturgintza, Euskararen ondarea eta ikerkuntza eta hedabideak.....	8

1 SARRERA

Txosten honetan, Elgoibarko Udalak EMUNen aholkularitzarekin, ESEP 2018-2022 planaren lan-ildo nagusiak zehazteko herriko hainbat eragile eta norbanakori igorritako galdetegiaren emaitzak aztertuko ditugu. Alde batetik, esparru bakoitzean aukeratutako lehentasuneko lan-ildoak zein diren jasoko dugu, eta bestetik, aurrera begira lantzeko interesgarriak izan daitezkeen ekintzak edo ekimenak proposatuko ditugu.


2 GALDETEGIAREN EMAITZAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK

2.1 Familia transmisioa

Familia transmisioari dagokionez, galdetegietan jasotako erantzunen arabera, honakoak dira datozen lau urteetarako lehentasunak:

- Guraso eta haurrak euskaraz egiteko guneak sortzea eta elikatzea.
- Gurasoen seme-alabekiko hizkuntza ohituretan eragitea.

1. *Grafikoa: galdetegian jasotako erantzunak.*



Esparru honetan familia euskaldunek izango dute lehentasuna; guraso euskaldun eta mistoetan hizkuntza kontzientzia eta hizkuntza portaerak landu behar dira. Horretarako, guraso kuadrillak euskararen erabileran haurren eredu izan daitezen ekimenak martxan jartzea proposatzen dugu, *Ahobizi* eta *Belarriprest* rolak baliatuz. Bestalde, egokia izan daiteke, herriko hedabideetan gurasoen eredugarritasuna indartzeko kanpainak egitea.


Hala ere, ezin dira ahaztu familia erdaldunak, eta horiengana iristeko bideak aurkitu behar dira, adibidez, herrian euskararen hautua egin duten guraso erreferenteak bistaratu...

2.2 Euskalduntze-Alfabetatzea

Euskalduntze-Alfabetatzearen esparruan, galdetegietan jasotako erantzunen arabera, honakoak dira datozen lau urteetarako lehentasunak:

- Etorri-berri helduentzako euskara ikastaroak antolatzea.
- Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatzea eta garatzea: diru-laguntzak, beka...
- Euskara ikasten ari direnentzako euskararen erabilera eta praktika uztartzeko ekimenak sustatzea.

2. Grafikoa: galdetegian jasotako erantzunak



Arlo honetan, orain arte egin den bezala, etorkin etorri berriak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko ikastaroak antolatzen jarraitu beharra dago. Horretarako, *AISA* ikastaroez gain, egokia izan daiteke etorkin etorri-berriei *Euskara plus* gisako ikastaroen berri ematea, euskararen bidez lan munduan sartzeko aukera izan dezaten.

Bestalde, euskara ikasleak ezagutzatik erabilerarako jauzia egiteko ekimenak sustatu beharko lirateke, esaterako, gaur egun martxan dagoen *Tertuliak* edo *Mintzalagun* egitasmoa indartuz. Horrez gain, ikasleek euren eguneroko bizitzan euskara gehiago entzun eta erabiltzeko egitasmo berriak martxan jartzea aproposa litzateke, adibidez, ikasleari euskararen ikaskuntza prozesuan lagunduko dioten bidelagunak aurkitzeko

proiektua (ikasle bakoitzaren inguruko bi-hiru pertsona euskaldunek ikasleari bere ikaskuntza prozesuan laguntzeko konpromisoa hartzeko egitasmoa).


Euskara ikasleek euskara praktikatzeko programak sustatzeaz gain, interesgarria izan daiteke euskara ikasleei herrian antolatzen diren euskarazko kultur ekitaldietan parte hartzeko erraztasunak ematea, adibidez, ekitaldietarako sarrerak dohainik eskainiz (Mintzalagunekoekin egiten den bezala), euskaraz egingo diren kultur ekintzen berri emanez, euskaltegiko ikasleei klase orduetan Elgoibarko kultur ondarearen inguruko hitzaldiak emanez...

2.3 Irakaskuntza arloa

Irakaskuntza esparruan, galdetegietan jasotako erantzunen arabera, honakoak dira datozen lau urteetarako lehentasunak:

- Nerabe-gazteekin motibazio praktikoa, sinbolikoa eta kulturala lantzea.
- Gazteengan eragitea eurentzako erreferente diren pertsonengana oinarrituta, euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko.
- Ikasle etorri berriak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea.

3. Grafikoa: galdetegian jasotako erantzunak



Arlo honetan, nerabe eta gazteei zuzendutako ekimenak jo dituzte lehentasunezkotzat galdetegia erantzun dutenek.

Gaur egun, HH eta LHko haurrei zuzendutako proiektu ugari egiten dira, eta horiei eutsi beharra dago, bereziki euskararen ahokotasuna lantzen jarraitzeko (euskarazko jolas eta kantak, bertsolaritza...). Ahokotasuna lantzeko beste herri batzuetan egiten diren esperientzien berri jasotzea ere interesgarria izan daiteke, esaterako, eskolan antzerkia lantzen duten esperientziak...


Nerabe eta gazteei dagokionez, gaur egun badira euskararekiko motibazioan eragiteko ikastetxeetan antolatzen diren ekintzak: pertsona erreferenteak, motibazio saioak... Horiez gain, esparru honetan gazteak

eurak euskaraz sortzera bideratutako ekimenak jartzea proposatzen dugu, hartzailerak sortzailerak izatera pasa daitezkeen: *youtuber* izateko formazio saioak (edo antzekoak), kuadrillen arteko lehiaketak (bideo laburren lehiaketak...). Euskal Herri mailan badaude Elgoibarrerako ere interesgarriak izan daitezkeen era honetako esperientziak, *Booktuberboom* egitasmoa, Aramaion antolatutako bikoizketa lehiaketa...

2.4 Aisia eta kirol arloa

Aisia eta kirol esparruan, galdetegietan jasotako erantzunen arabera, honakoak dira datozen lau urteetarako lehentasunak:

- Kirolean euskararen presentzia eta erabilera sendotzea, antolaturiko jardueretan eta entrenamenduetan.
- Haur eta gazteen aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea.
- Herritarren arteko hizkuntza ohituretan eta motibazioan eragiteko herri mailako egitasmoak antolatzea.
- Kirol eta kultur ekitaldi garrantzitsuenetan euskara ere komunikazio hizkuntza izan dadin bermatzea.



4. Grafikoa: galdetegian jasotako erantzunak

Nabarmena da kirol esparruan euskararen presentzia eta erabilera sendotzeak arlo honetan hartzen duen garrantzia. Azken urteotan egin dira zenbait ekimen kirol esparruan euskararen erabilera sustatzeko, hala nola, *Kirola Euskaraz* egitasmoaren baitan entrenatzaileei zuzenduriko ikastaroa, kirol entrenamenduetan egindako kale neurketak... Hala ere, kirol esparruak haur, nerabe eta gazteengan duen eragina ikusita, oso garrantzitsua iruditzen zaigu haur, nerabe eta gazteekin lan egiten duten kirol elkarteekin lanketa sakonagoa egitea, euskararen erabilera haur eta gazteentzat eredu garri izan daitezkeen; kirol elkarteak euskararen arnasgune izatea lortu beharko litzateke.


Aisialdiari dagokionez, herritarren arteko hizkuntza ohituretan eta motibazioan eragiteko herri mailako egitasmoak antolatzea ere lehentasunezkoztat jo dute galdetegia bete duten eragileek. Aurten *Euskaraldiaren* urtea izango da, eta ikusi beharko da zer emaitza ematen dituen eta aurrera begira zer ibilbide izaten duen egitasmo horrek. Hala ere, hizkuntza ohiturak aldatzeko formula egokia izan daitekeela uste dugu, eta *Ahobizi* eta *Belarriprest* rolak oso egokiak izan daitezkeela herritarren arteko hizkuntza ohituretan eragiteko.

Gainerako arloetan, azken lau urteetan egindakoaren ildotik jarraitzea aproposa dela uste dugu.

2.5 Arlo sozio-ekonomikoa

Arlo sozio-ekonomikoan, galdetegian jasotako erantzun arabera, honakoak dira datozen lau urteetarako lehentasunak:

- Merkataritza-ostalaritzan, kanpoko irudian eta idatzizko zein ahozko komunikazioan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea, herritarren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko.
- Enpresetan euskararen erabilera handitzea, euskara plana sustatzeko kanpainak eginez eta praktika onak zabalduz.



5. Grafikoa: galdetegian jasotako erantzunak

Merkataritza-ostalaritza sektorean euskararen presentzia bermatzeko eta sustatzeko, egokia litzateke *Gurean Bai Merkataritza-Ostalaritza* proiektuarekin jarraitzea; horrez gain edo proiektu horren baitan, garrantzitsua iruditzen zaigu herriko saltoki handietan eragitea, izan ere elgoibartar askok egiten dituzte erosketak saltoki horietan. Horrez gain, azken urteotan, merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera sustatzeko egin diren motibazio ekintzen antzekoak egiten jarraitzea ere egokia dela uste dugu: euskararen erabilera sustatzeko giden banaketa, pintxo lehiaketa...


Enpresa arloari dagokionez, euskararen erabilera handitzeko bide berriak urratu beharko lirateke; horretarako, udalak euskara sustatzeko ekintzak burutzen dituzten enpresentzat sortu duen diru-laguntza lerro berria bide egokia izan daitekeela uste dugu. Diru-laguntzez gain, enpresek euskararen erabilerean sustapenean urratsak eman ditzaten bestelako baliabide batzuk ere eskaintzea komenigarria iruditzen zaigu, esaterako, enpresei euskararen erabilerean presentzia handitzeko ekintza planen proposamena egitea, enpresen arteko topaketak bultzatzea (Danobat bezalako enpresen esperientzien berri emateko).

2.6 Liburugintza, Kulturgintza, Euskararen ondarea eta ikerkuntza eta hedabideak.

Esparru honetan, galdetegietan jasotako erantzunen arabera, honakoak dira datozen lau urteetarako lehentasunak:

- Euskarazko kultura eskaintza eta kontsumoa bultzatzea.
- Euskarazko hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea: Barren astekaria, barren.eus...
- Elgoibarko euskalkia zaindu eta zabaltzea: Ahotsak egitasmoa...
- Euskarazko sorkuntza bultzatzeko egitasmoak abian jartzea edo indartzea.

6. Grafikoa: galdetegian jasotako erantzunak



Elgoibarko Udala eta berarekin elkarlanean ari diren eragileak arlo honetan lan bikaina egiten ari direla uste dugu. Lan handia egin da Elgoibarko ondarea jasotzeko, eta orain jasotako ondare hori ahalik eta gehien zabaltzeko moduak aurkitu behar dira. Esaterako, *Ahotsak* egitasmoaren baitan bildutako ahozko ondarea lantzeko ikastetxeetan egin den lanketa oso aproposa da; era horretako egitasmoak baliagarriak izan daitezke bildutako ondarea gizarteratzeko.